

1. unitatea

XVI. mendea
(Errenazimentu garaia)

Bernat Etxepare
Linguae Vasconum Primitiae



Gure hizkuntzan inprimatu zen lehenengo liburua.
Linguae Vasconum Primitiae
Bordele (Frantzia), 1545.
Bernat Etxepare.

Joana III.a Albretekoa, Nafarroako
Eregina, Nafarroa Beherean
(1555-1572).



Eukaltzalea.
Protestantismoa zabalteko,
Testamentu Berria obraren itzulpena
agindu zuen. Bibliaren zati berria da.

Testamentu Berria
Aroxeia (Frantzia), 1571.
Joanes Leizarraga buru
zen idazle talde baten
itzulpen lana.



Joanes Leizarraga
Testamentu Berria

Joanes Etxeberri "Ziburukoa"
Manual Debotionezkoa



Literatura
erlijiosoa.
Hitz neurtez
eginko obra mardula.
Manual Debotionezkoa
Bordele (Frantzia), 1627.
Joanes Etxeberri, Ziburukoa.

Gure
literatura klasikoko
obrarik ospetsuena.
Gero
Bordele (Frantzia), 1643.
Pedro Agerre "Axular".


Pedro Agerre "Axular"
Gero



XVII. mendea (1)
(Barroko garaia)

4 Pedro Agerre, Axular

Gero



Pedro Agerre Axular



(1556 - 1644)



Datu biografikoak

Pedro Agerre Azpilkueta Nafarroako Urdazubi herrian jaio zen, Axular izeneko etxean, 1556an.

Salamanca unibertsitatean Teologia ikasi zuen eta 1600. urtean Urdazubitik hurbil baina Lapurdin dagoen Sara herriko erretoare jarri zen, bertako apaiz. Sermolari ospetsua izan zen eta Saran idatzi zuen *Gero* liburu ospetsua, gure literatur tradizioan mugarri den obra.

Saran hil zen, 1644an.

Gero nola sortu zen

Bgun batez, konpainia¹ on batean, euskaldunik baizen² ez zen lekuan nengoela ekarri zuen solasak³, izan zen perpausa⁴, ez zuela deusek⁵ ere bainbat kalte egiten arimako, ez eta gorputzeko ere, nola egitekoen geroko uzteak, egunetik egunera, biharretik biharra luzatzeak. Eta on zatekeela⁶ gauza honetaz liburu baten, euskaraz, guztiz ere euskararik baizen ez dakitenentzat, egitea: eta hartan, gero dioenak bego⁷ dioela erakustea. Konpainia berean galdegin zen berehala, ea nori emanen zeikan⁸ liburua- ren egiteko kargua⁹. Eta bertze guztien artetik, hasi zeizkidan¹⁰ niri neroni aditzera ematen, lehenbizian keinuz eta aieruz¹¹, eta gero azkenean, klarki eta agerriz¹², nik behar nituela egiteko hartan eskuak sartu. Ordea, nola ez bainintzen neure buruaz fio, desenkusatu¹³ nintzen ahal bezainbat. Baina alferrik, zeren hain zinez eta batean lotu zeizkidan, non ezetz erraiteko bide guztiak bertsi baitzerauzkidaten¹⁴. Eta hala, deliberatu¹⁵ nuen, buru-eragozkarri¹⁶ bezala, liburutto baten, bi partetan partiturik, gero honen gainean egitera.

Eta nahi nituzkeen bi parteak elkarrekin, eta batean atera. Baina ikusirik zein gauza guti erideiten den euskaraz eskribaturik, goganbeartu¹⁷ naiz eta beldurtu, ez diren bideak asko segur eta garbi, baden bitartean zenbait trabu edo behaztopa harri. Eta, balatan, hartu dut gogo lehenbiziko parte honen lehenik benturatzeko¹⁸, eta berri jakitera bezala aitzinerat igortzeko. Honek zer iragaten den, zer begitarte¹⁹ izaten duen, eta nor nola mintzo den abisu eman diezadan. Gero, abisu haren arauaz, etorkizunerat gobernatzeko: eta bigarren partearen kanporat ateratzeko, edo barrenean gelditzeko eta estaltzeko.

1

Bilatu lauki horietan hitz markatuen esanahiak.

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
- 7
- 8
- 9
- 10
- 11
- 12
- 13
- 14
- 15
- 16
- 17
- 18
- 19

agindua
zitzaizkidan
izango zela
egon dadila
lagunarte
baizik
hizketak
mintzagaia
ezerk
zitzaion

imintziaz
erabaki
obligazio
kezkatu
argi eta garbi
barkamena eskatu
baitzizkidaten
kanporatzeko
harrera

2

Gero-ren hitzaurre horretan, Axularrek bere obra zelan sortu zen azaltzen du. Jarri azalpen horien klabe-letrak testuan dagoen zatiaren ondoan.

- A Gai horretaz euskaldunentzat obra bat egitea komeniko zela hitz egin zen.
- B Lagunarte batean mintzagai izan zen salbazioa gerorako uztea zein kaltegarria den.
- C Liburua bi zatitan egitea pentsatu zuen.
- D Lagun taldekoek Axular jo zuten pertsona egokitzat obra hori egiteko.
- E Baina euskaraz obra gutxi dagoela aintzat hartu zuen, eta lehen parte baina ez egitea erabaki zuen, zer gertatzen zen ikusteko.
- F Axular ezetz esaten ahalegindu zen, baina alferrik.

Jakingarriak

3

Irakur itzazu informazio horiek eta bete hutsunak beheko zerrendetako hitzak aukeratuta.

• XVII.eko testuinguru erlijiosoa

Aurreko mendean Elizaren ustelkeria zuzentzeko Martin Luther-ek Erreforma protestantea egin zuen. Horren erreakzio gisa, Eliza katolikoak sustatu zuen eta horrek katolizismoaren jokabide zurruna eta beldurrezkoa ekarri zuen: 1542an, 1543an zentsura inprentan eta 1545-63an Trentoko Kontzilioa. Kontzilioaren eraginez literatura asetikoa eta asko hazi ziren eta elizako liburuak hizkuntzetan jartzen ere hasi ziren.

• Sarako Eskola

XVII. mendean, Lapurdin, idazle talde garrantzitsu bat sortu zen, gehienbat osatua: Ziburuko Etxeberri, Axular, Materre, Argaignarats, Haranburu, Klaberia eta beste batzuk. Dirudienez, zen taldeko idazle ohoretsuena, eta Axular trebeenetakoa. Sara, eta Ziburu herriek osatzen duten triangeluan mamitu ziren harremanen sare horretan, denen artean, gure lehen literatur indartsua piztu zuten eta lapurtera klasikoa deitua den hizkuntza literarioa garatu zen.

• XVII.eko testuinguru ekonomikoa

Mende honetako autore eta obra ia guztiak dira. Garai hartan aldean, batik bat, loratze ekonomikoa garrantzitsua gertatu zen: untzigintza, arrantza (balea, bakailoa...) eta merkataritza arloetan. Eta horrek jende multzo bat sortu zuen, liburuak erosteko ahalmena ere bazuena. Hegoaldean, berriz, ekonomikoa gertatzen ari zen, Espainian bezala.

• Axular eta erretorika klasikoa

Garai haietan unibertsitateetan ikasitakoek erretorika sakon lantzen zuten. Axularrek bere irakurgai zatiak egituraketa klasiko baten arabera zituen, lau ataletan. Lehenengo, auziaren , hots, zer frogatu nahi duen; bigarrenik: arrazoiak ematea; hirugarrenik, hornitzea; eta laugarrenik,

• Gero

Liburu da *Gero*: geroko gerotan dabilenari, hau da, bere arimaren gerorako uzten ari denari kargu hartzeko obra da, salbazio bidean lehenbailehen jar dadin limurtzeko.

Liburua egiteko lagun talde batean jaso zuela aipatzen du sarreran, Sarako Eskola izenez ezagutzen dugun gizon ikasien taldean, hain zuzen. Eta egiteko asmoa ere azaldu zuen. Bat argitaratu zuen, ordea; baina bikaina.

• Gero: latinezko aipuak eta itzulpenak

Axularrek bere obran hainbat eta hainbat aiputxertatzen du, autore klasiko askorenak. Eta, ondoren, euskaraz ematen ditu, maisutasunez itzulita eman ere.

Jokabide horretan bi aipatu dituzte ikertzaileek: bata, Axularrek bere edo jakituria erakusteko gogoia; bestea, itzulpen egoiak egiten irakasteko helburua, hots, Axularrek elizgizoni latinezko testuak egokiro nola behar ziren irakasten zien.

- | | |
|------------------------|---------------|
| • Kontrarreforma nazio | • salbazioa |
| • Iparraldekoak | • enkargua |
| • Inkisizioa | • eskolatu |
| • mistikoa | • beherakada |
| • Lapurdi | • aszetikoa |
| | • bi partetan |

- | | |
|----------------------|---------------|
| • Donibane mugimendu | • adibideekin |
| • klasikoa | • arrazoi |
| • taxutu | • erudizioa |
| • elizgizonak | • euskaratu |
| • Etxeberri | • ondorioa |
| • aurkezpena | • latinez |



Irakurtzaileari

Badakit, anitzek¹ miretsiko duela eta edirenen² arrotz eta estrainio³ ni lan boni lotzea. Zeren anitz izan baita oraino-koan⁴, eta baita orain ere, ni ez bezalako-rik, ni baino bonetako gaiagorik eta antzetsuagorik⁵, ez baitute guztiarekin ere, orainokoan, bonelako materiatan, bonela ausartziarik eta eskudantzarik⁶ bartu. Baitirudi ezen asko⁷ behar litzatekeela arrazoi hau ene gibelatzeko⁸ eta geldia-razteko ere. Baina ene kontra dela dirudien arrazoi honek beronek ni espor-tzatzen⁹ eta aitzinatzen¹⁰ nau, honek bibotz ematen¹¹ dit, hau edireiten dut nik neure alde eta fabore, zeren enseiukarre-an¹² bezala egiten diren lehenbiziko obrek eta entseiuek, zenbait huts eta falta izanagatik¹³ ere, badirudi ezen, zeren lehe-nak diren, barkakizun¹⁴ direla, eta batbe-derak¹⁵ disimulatzeke, ez ikusi iduri¹⁶ egiteke, eta are desenkusatzeko dituela.

Badakit, halaber, ezin beda naitekeela euskarazko mintzatze molde guztietara. Zeren anitz moldez eta diferentki mintza-tzen baitira Euskal Herrian: Nafarroa Garaian, Nafarroa Beherean, Zuberoan, Lapurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Araba herrian, eta bertze anitz lekutan. Batak erraiten du behatzea, eta bertzeak so egitea; batak haserretzea eta bertzeak samurtzea; batak ilkitzea, bertzeak jalgitea; batak atea, bertzeak borta; batak erraita, bertzeak esatea; batak irakurtzea, bertzeak leitzea; batak liskartzea, bertzeak ahakar-tzea; batak auzoa, bertzeak barridea; batak aitonon semea, bertzeak zalduna. Finean batbederak bere gisara, antzura eta moldera. Ez dituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko mintzatzea ere...

Baldin egin balitz euskaraz hainbat liburu nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, bek bezain aberats eta konplitu izanen litzateke euska-ra ere. Eta baldin hala ez bada, euskaldu-nek berek dute falta eta ez euskarak.

4

Lehen zatia. Bilatu lauki beilegiotan markaturiko hitzen sinonimoak edo egituren parekoak.

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
- 7
- 8
- 9
- 10
- 11
- 12
- 13
- 14
- 15
- 16

askok
ausardia
nahikoa
aurkituko
bitxia
niri atzera eragiteko
orain arte
trebeagorik

animatzen
ez ikusi itxura
saio gisa
izan arren
aurrera bultzatzen
animatzen
barkagarri
bakoitzak

5

Lehenengo testua.

1. Punturik puntura, zenbat esaldi daude?
2. Azken esaldi luzean, zenbat aldiz erabili ditu zeren eta ezen?
3. Zer dio Axularrek pasarte horretan? Hiru X.
 - Adierazten du ezen askori bitxia egingo zaiela bera horrelako materia batean murgiltzea.
 - Bere burua gai ikusten du lan horri ekiteko.
 - Aitortzen du inor aritu ez izana arrazoi nahikoa izan beharko litzatekeela bera ere ez sartzeko.
 - Lehena izatea, ordea, abantaila izan litekeela dio, lehen saioak ez baitira horren zorrotz epaitzen.

6

Bigarren testua. Zer dio Axularrek? Hiru X.

- Euskal Herriko mintzaira guztiak dakizkiela.
- Euskal Herriko herrialdeetan hainbat hizkera dau-dela, lege eta ohitura desberdinak dauden bezala.
- Euskaldunok, lexikoari dagokionez, hainbat aldaki erabiltzen ditugula.
- Zazpi herrialde bereizten ditu Euskal Herrian, eta banan-banan aipatzen ditu.

7

Hirugarren testua. Zer dio Axularrek? Hiru X.

- Dio ezen euskaraz beste hizkuntzetan adina liburu egingo direla.
- Euskara edozein hizkuntza bezain goi mailakoa izan daitekeela.
- Onartzen du euskaraz beste hizkuntza batzuetan baino obra gutxiago idatzi dela.
- Dio ezen euskaldunok garaile euskara behar bezain garatua ez egotearen errudun.



Alferrari

Zein zaldi da on edo hobea, geldirik eta alferrik bere plazerera dagoena ala ibiltzen eta maneiatz¹ dena? Zein untzi, kostan dagoena ala itsasoan dabilena? Zein ur, geldia ala lasterra? Zein burdina, zokoan datzana ala erabiltzen dena? Segur da erabiltzeaz, maneiatzeaz eta eskuztatzeaz² guztiak ontzen, argitzen eta fintzen direla; eta baita alfer eta geldi egoteaz guztiak galtzen, desegiten eta herdoiltzen ere. Bada, hori berori gertatzen da alfer dagoenaren baitan³ ere.

Dabilen barriari ez zaio goroldiorik⁴ lozten. Ur irakinean ez du euliak pausatzten. Ardurako⁵ arropari ez zaio zedenik⁶ egiten. Zubaitz betekor⁷ ez du inork ebakitzen. Baina alferra, hutsala, bere sasoiari jasaten ez duena... zertako da? Ut quid etiam terram occupat? Horrelakoak zertako trabatuko⁸ du Lurra?

Denbora

Denbora da leben, orain eta gero gauzen ibiltzea, iragatea⁹; eta, iragatearekin batean, bigatzea eta akabatzea. Denbora beti doa. Neque quod futurum est meum, neque quod fuit, dio Senekak. Iragana eta etorkizuna ez dira gure. Joana joan, etorkizuna etorkizun, presentekoa da gure, eta ez bertzerik.

Izan da erran duenik denbora ez dela deus¹⁰, hartaz oroitzapenik eta pentsatzerik ez denean. Eta, horrela, lo datzanari¹¹ ez zaiola orduko denbora deus iruditzen, ez duela sentitzen, ez balitz bezala iragaten zaiola. Zeren orduan ez baitu hartan pentsatzen eta ez gogorik¹² edukitzen.

Urarekin konparatu¹³ nabi nuke denbora. Zeren denborak eta urak elkarren irudika¹⁴ handia baitute. Ura beti doa, bata bertzeari darraio¹⁵. Iragana aitzina¹⁶ joana da, etorkizuna dator gibeletik¹⁷, eta aitzinekoak guti irauten du aitzinean. Ez du inork iragandako uretik hartzen, ezta etortzeko dagoenetik ere: aitzinekotik behar da hartu, iragatean, presente denean.

Horrela da, beraz, eta horrela egin behar duzu denboraz ere: presente denari lot zakizkio¹⁸ eta probetxa. Zeren bertzela, haize ona dabilenean itsasoratu gabe gelditzen den belauntzia bezala gera zaitzke zu ere.

8

Alferrari eta Denbora zatiak. Bilatu lauki beilegi horietan testuetan markaturik dauden hitzen sinonimoak edo egituren parekoak.

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
- 7
- 8
- 9
- 10
- 11
- 12
- 13
- 14
- 15
- 16
- 17
- 18

dagoenarengan
belarkirik
erabiltzen
eskuetan hartzeaz
emankorra
oztopatuko
maiz janzen den
sitsik, pipirik

igarotzea
alderatu
antz, itxura
jarraitzen zaio
ezer
dagoenari
borondaterik
aurrera
atzetik
euts iezaiozu

9

Alferrari. Markatu aukera zuzenak. Hiru X.

- Pasarte horretan Axularrek galderekin bideratzen du tesia.
- Bigarren paragrafoan bost atsotitz jarri ditu, tesia indartzeko.
- Pasarteko mezua hau da: alferkerian bizi dena azkenean galdu egiten da, baliogabeko bihurtzen da, ezgauza.
- Azken esaldiak argi eta garbi adierazi nahi du alferra sobran dagoela Lurrean, ez baitu inolako zereginik betetzen.
- Aurrekoan bezala, pasarte honetan ere nabaria da Gero obra mistikoa dela, hots, sentimendu erlijioso indartsuen eraginpean bizi den idazle baten obra.

10

Denbora. Markatu aukera zuzenak. Hiru X.

- Axularrek pasarte horretan egitura deduktiboa erabili du: tesia edo ideia nagusia hasieran.
- Latinezko aipuaren itzulpen literala egin du, Leizarragak egiten zuen bezala.
- Axularrek denborari buruzko argumentazioa adibideekin hornitu du.
- Axular irakurleari zuzentzen zaio, 2. pertsonan, hurbiltasuna lortzeko.
- Nahiz eta irakurleari zuzendu, ez dio aholkurik ematen; ez da hori idazlearen helburua.

Maitale itsutuarena

Usoa bezalakoa da maitale itsutua. Usoak ez du, bertze hegaztiak bezala, edatean burua goiti¹ altxatzen. Edan gogo duena, abereak bezala edaten du: hatsik² hartu gabe, burua goratu gabe, kolpe batez edaten du. Bertze hegaztiak, edateko, kurka³ guztietan, abatar⁴ bakoitzean burua goiti altxatzen dute. Eta badirudi naturak berak irakatsirik egiten dutela horrela. Zeren nola orduan baitute perilik⁵ gebien, zeren orduan baitaude geldienik uretara beba⁶, eta orduan baitira ebiztariek ere zelatatuak, barrendatuak⁷ eta zainduak, balatan daude bek ere iratzarriak orduan, eta edaten duten ur xorta⁸ guztietan ingurunera behatzen dute, eta burua goiti altxatzen, guardia egiteko bezala.

Baina usoak ez du horrelakorik egiten, abuspez⁹ dago, ase¹⁰ arteino¹¹; ez du, bitartean, bururik altxatzen, eta ez ingurura begiratzen. Eta horretan ageri¹² da usoaren inozentzia eta ergelkeria, perilik gebien duenean baita eroenik eta axolagabeenik.

Horrelakoa da, bada, bere gogo guztia emakumeetan ipinia daukana ere. Etsaia zelatan dagokionean, perilik gebien duenean, orduan dabil galduenik eta eroenik. Zeren bere edate hartaz eta plazeraz baizen¹³ ez baitu, deusez ere bertzez¹⁴, konturik egiten.

Erleak eta inurriak

Erleak, hain gauza ttipiak eta flakoak¹⁵, betetzen du mundua eztiz eztitzeko eta ezkoz¹⁶ argitzeko. Eta gaitz¹⁷ litzateke kontatzea nola gobernatzen diren erleak elkarren artean; nola duten bere erregina eta obeditzen duten; nola zabarrak kofauean¹⁸ barrena, etxeko lanen egiten egoten diren; eta gazteak bere mantenuaren eta bizigaien¹⁹ garraioan kanpotik ari diren. Eta nola bertzerik ere anitz gauza egiten duten eta guztiak hain ordenantza handiarekin, non baitirudi ezen ez dela erregerik bere erresuma hain ongi gobernatzen²⁰ duenik, nola erleak bere erreginarekin batera trabailatuz, gobernatzen baitute berea.

11

Bilatu lauki beilegiotan testuetan markaturik dauden hitzen sinonimoak edo egituren parekoak.

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
- 7
- 8
- 9
- 10
- 11
- 12
- 13
- 14
- 15
- 16
- 17
- 18
- 19
- 20

arriskurik
begira
gora
arnasarik
hurrua, trago
ahokada, ahamen
ahoz behera
bete
zelatatuak
xurrutada

argizariz
zaila
artean
nabari
erlauntzan
elikagaien
baino
beste ezertan
ahulak
zaintzen

12

Maitale itsutuarena. Markatu aukera zuzenak. Hiru X.

- Usoen jokabidea gizakiontzat eredugarria dela dio.
- Autoreak dio ezen hegaztien artean usoa dela axolagabeena, ez baitu bere burua jagoten.
- Gizakia eta usoa alderatzen ditu, esanez biek ere arriskuaz ohartu gabe jokatzen dutela.
- Bukaeran, emakumeekin aritzen dena edateaz eta plazeraz soilik arduratzen dela dio.
- Emakumetarako zaletasunak gizona itsutu egiten duela dio.

13

Erleak eta inurriak. Bete ariketok.

1. Testuan bada kontraste handiko ideia bat.
.....
.....
2. Lapurteraz *-t(z)en* aspektuarekin, zeren egiten moldea erabiltzen da. Idatzi testuko adibide bat.
.....
.....
3. Aztertu testuko azken perpaus konplexuan dauden atzizkiak. Idatzi eskema.

HAIN... NQN

14

Aztertu item hauek eta markatu egia diren ala ez: Egia / Faltsua.

E F

1. Pedro Agerre *Axular* idazlea Lapurdin jaio zen, XVI. mendean
2. *Gero* obra talde lana da, Axularrek eta beste apaiz batzuek elkarlanean egina.
3. Axularrek autore klasikoan aipu ugari txertatu zituen, latinez.
4. *Gero* obra argitaratu zenean, XVII. mendean, Iparraldeko ekonomia ondo zegoen.
5. *Irakurtzaileari* sarreran, Axularrek obra bi zatitan egiteko asmoa azaltzen du.
6. Sarako Eskola deituriko mugimenduan Axular izan idazle guztien gidari.
7. Axularren obra literatura erlijiosoan kokatzen da, aszetika azpigeneroan.
8. Nafarreraz idatzi zuen obra Axularrek, eta zati batzuk beste euskalkietan.
9. Axularrek maiz jotzen du naturako elementuetara eta adibideetara tesiak biribiltzeko.
10. *Gero* obran Axular erretorika molde berri bat erabiltzen aitzindaria izan zen.

15

FITXA TEKNIKOAK. Koka itzazu beheko informazioak. Grisez daudenak, goiko hutsuneetan.

	Mendea Urtea Non	Egilea Titulua Non idatzia	Nongoa Herrialdea Dohaina	Espreaera Generoa-Azpigeneroa Gaia
	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Testuingurua	Obraren ezaugarriak		Berezitasunak	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Sara-Donibane-Ziburun idazle talde garrantzitsua		Hitz lau	Pedro Axular	Erljioa-Aszetika	Arimaren salbazioa
Prosa aberatsa, egituretan eta lexikoan		Sarako eskola giroan sortua		Bordelen	Kontrarreforma ondorengo giroan
Sermolari ospetsua	Urdazubi	Latinezko aipu ugari, erudizioa		Europar elizliburuak nazio hizkuntzetan	Nafarroa
<i>Gero</i>	Axularren prosa, euskara klasikoa	Irakurgaiak egitura klasikoan eratuak		Saran	Obra bi partetan egiteko asmoa
Lapurdin egoera ekonomiko ona		1643	Kantatuak izateko	Autorea ohartua euskara molde aniztasunez	XVII